



# **HIZKUNTZA ALDAMIATZEA (I)**

## IRAKASKUNTZA-ESTRATEGIAK ALDAMIATZEA

Hiru alderdi hauek hartu behar ditugu oso kontuan hizkuntzen ikaskuntza errazteari edo oztopatzeari dagokienez:


1. Haurrek gehiago eta hobeto ikasten dituzte, bai hizkuntza, bai era guztietako ezagutza eta esperientziak, komunikazio-giro aberats, askotariko eta testuinguruan kokatuetan. Eskola esparruan, beraz, ahalik eta gehien inplikatu behar dira eguneroko jardueretan, interakziorako eta ikaskuntza kooperatiborako aukerak jokoan jarritz.
2. Ez da espero haurrek beren garapen-aukeren gaitetik ulertzea edo adieraztea. Gainerako pertsonak gara gure hizkuntza eta itxaropenak ikasleen mailara egokitu behar ditugunak.
3. Hizkuntza-akatsak ikaskuntza-prozesuaren parte dira.

Coelho, E. (2005)

### Aldamiatzea

Instrukzio metodo bezala aldamiatzea aipatu zuen lehena Lev Vygotsky izan zen. Berak garatutako kontzeptua, garapen hurbileko eremua (ZPD), erabat erlazionatuta dago aldamiatze kontzeptuarekin, oinarria ez bada.

"Garapen Hurbileko Eremua haurrek beren kabuz egin dezaketenaren eta laguntzarekin lortu dezaketenaren arteko distantzia da"



Vytgosky-ren teoria soziokonstruktibista

Tarteko ikaskuntza-etapa horretan, ikasleak gaitasun osoa eta independentea lortuko du berak baino ezagutza edo trebetasun handiagoa duen norbaiten laguntzarekin. Aldamiatzea, beraz, metafora gisa erabiltzen da deskribatzeko nola lagundu ahal zaien ikasleei beren kabuz modu autonomoan egiteko oraindik prest ez dauden gauzak lortzen.

Edukia eta hizkuntza ikasteko euskarria deskribatzen du aldamiatzeak, hau da, dagoeneko ezagutzen denaren gainean ikaskuntza berriak nola eraikitzen diren erakusten du. Aldamioek ikasleen gaitasuna errazten dute aurreko ezagutzaren gainean informazio berria barnerratzeko. Laguntza, pixkanaka, murriztu egingo da ikasleek ezagutzak eta esperientzia eskuratzen dituzten heinean, beren kabuz egin dezaketela eta ikaskuntzarekin aurrera jarraitu dezaketela agerikoa denean.

## **Aldamiatzea: helburuak**

Besteak beste, honako hauek dira aldamiatzearen bidez lor daitezkeen helburuak:

- Ikasleak atazarekiko interesa erakustea.
- Ataza sinplifikatzea, ikasleentzat erabilgarriagoa eta eskuragarriagoa izan dadin.
- Laguntzak ematea helburuak lortzen laguntzeko.
- Argi eta garbi ikusaraztea zeintzuk diren ikaslearen lanaren eta helburu estandar edo desiratuaren arteko aldeak.
- Frustrazioa eta arriskua murriztea.
- Egin beharreko jardueraren espektatibak argi eta garbi modelatzea eta definitzea.
- Ikasleek aurki ditzaketen arazoak aurreratzea, eta, ondoren, urratsez urrats jarraibideak garatzea.
- Helburuak argitzea: aldamioek lana zergatik egiten ari diren eta zergatik den garrantzitsua ulertzen laguntzen diete ikasleei.
- Espektatibak argitzea eta ebaluazioa eta iruzkinak gehitzea: espektatibak argiak dira jardueraren hasieratik, ikasleei ereduak, errubrika eta bikaintasun-estandarren adibideak erakusten baitzaizkie.
- Ikasleak iturri fidagarrietara eramatea: irakasleak iturriak ematen ditu nahasmena, frustrazioa eta denbora murrizteko.
- Ziurgabetasuna, ustekabea eta etsipena murriztea: irakasleek ikasgaiak probatzen dituzte, balizko atal problematikoak zehazteko, eta, ondoren, ikasgaiak fintzen dute, zailtasunak ezabatzeko eta ikaskuntza maximizatzeko.

## **Aldamiatzea: teknikak**


Aldamiatzeak metodo aktiboak behar ditu eta ikasgelako kudeaketa kooperatiboa eta komunikazio mota oro (linguistikoa, bisuala eta mugimenduzkoa) hartzen ditu bere baitan. Garrantzitsua da ikus-entzunezko eta multimedia laguntzak erabiltzea hizkuntza berriak sorrarazten dituen arazoak gainditzeko.

Aldamiatzeak forma asko hartzen ditu. Adibidez, entzundakoaren ulermena lantzen dugunean, ikasleei esanahia ulertzen lagun diezaiekegu aditzaren denbora jakin baten formari errapatuz, edo

irakurriaren ulermena garatzeko, testuari buruz irakasleak egiten dituen galderak bideratu dezakete ulermena. Idazteko trebetasunak garatzeko, berriz, testuen ereduak eman ahal zaizkie ikasleei edo euskarri bisualak ideiak antolatzen laguntzeko (kausa-ondorioa erlazioak, prozesuak...).

Aldamioak, laguntzak, egituratzen eta ematen dituena irakaslea bada ere, taldekide trebeago batek ere eman ditzake. Gelako ikaskideekiko, irakaslearekiko eta multimedia-baliabideekiko elkarrekintzaren bidez, ikasle bakoitzak ezagutza berria eraikitzen du bere erritmoan, benetako ulermen eta gaitasuna lortzeko.

Azpimarratu egin behar da hizkuntza ezagutu ez eta gure sisteman sartu berri diren ikasleen hizkuntza lanketari dagokionez, laguntza edo aldamiatze handiena eskaini behar zaiela. Hasiberrientzako jarduerak komunikazio-trebetasunak garatzeari lotutakoak izan behar dute, erakargarriak, eskuragarriak eta beren bizitzekin eta berehalako beharrekin lotutakoak. Beraz, jarraibide ulergarriak, ereduak, laguntza bisualak eta feed-back etengabea behar dute.



<p><b>Aldamiatze teknikak</b></p> <p>Aldamiatze teknikak hiru kategorian nagusitan bereiz daitezke, hurrengo taulan erakusten den bezala. Lehenik, hizkuntza ahoz erabiltzen denean aplika daitezkeen teknikak daude; bigarrenik, prozedurak barne hartzen dituzten teknikak; eta hirugarrenik, jarraibideak barne hartzen dituzten teknikak.</p>		
<p><b>Ahozko aldamiok (hizkuntzaren garapenean zentratua)</b></p>	<p><b>Prozedurazko aldamiok (taldekatzeko teknikak eta jardueren egiturak eta esparruak)</b></p>	<p><b>Irakasteko aldamiok (ikaskuntza babesten duten tresnak)</b></p>
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Parafraseatzea</li> <li>2. "Ozenki pentsatzea"</li> <li>3. Testuinguruaren definizioak indartzea.</li> <li>4. Galderak egitea Bloom-en taxonomia kontuan hartuta.</li> <li>5. Oharrak idaztea.</li> <li>6. Ahozko testuari testu idatziarekin jarraitzea.</li> <li>7. Ikaslearen erantzuna lantzea eta zabaltzea.</li> <li>8. Hitz sustraikideak erabiltzea (Kognatuak)</li> <li>9. Sinonimoak eta antonimoak nahita erabiltzea.</li> <li>10. Itxaronaldiak kudeatzea, denbora ematea erantzunak garatzeko.</li> <li>11. Ohiko egiturak eta errutinak irakastea "komunera joan naiteke?" "Barkatu", etab.</li> <li>12. Irakasleak enuntziatu eta artikulazio argiak, zehatzak eta geldo ahoskatuak baliatzea, hala behar denean.</li> <li>13. Atzera-elikadurarako teknika zuzentzaileak baliatzea, batez ere, hautaketa, argitze-eskaerak eta pista metalinguistikoak.</li> <li>14. Kantuak, musika, erritmoa eta errima baliatzea.</li> <li>15. Antolatzaile grafikoak baliatzea hizkuntza atazak burutzeko.</li> <li>16. ...</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Irakaskuntza esplizitua baliatzea: eredu ematea, praktikan jartzea eta aplikatzea.</li> <li>2. Modelatzea.</li> <li>3. Ikasleak parekatzea eta taldekatzea: esperientzia/ezagutza txikia duten ikasleek esperientzia/ezagutza handiagoa duten ikasleekin.</li> <li>4. Aurretiko ezagutza(k) aktibatzea.</li> <li>5. 1-2-4 teknika baliatzea.</li> <li>6. Informazioa pertsonalizatzea (norberaren bizitzarekin erlazionatzea).</li> <li>7. Buruhusgarriak erabiltzea.</li> <li>8. Diktoglosak</li> <li>9. Talde-lan eta teknika kooperatiboak baliatzea.</li> <li>10. Taldeko idazketa proiektuak proposatzea.</li> <li>11. Errutinak erabiltzea.</li> <li>12. Gibbons-en jarduera-zikloa baliatzea (ahozko informala- ahozko formala- Idatziko informala- idatzizko formala).</li> <li>13. ...</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Antolatzaile grafikoak, ikus-euskarriak</li> <li>2. Objektuak manipulatzeko, manipulazio jolasak/jarduerak</li> <li>3. Hitzen horma</li> <li>4. Askotariko hiztegiak eta baliabideak ikasgelan.</li> <li>5. Irudi etiketatutak.</li> <li>6. Piktogramak.</li> <li>7. Rol-jokoak, simulazioak</li> <li>8. Prozesuak idaztea</li> <li>9. ...</li> </ol>
<p><b>Iturria:</b> Echevarria, J., Vogt, M. &amp; Short, D.J. (2004). Making content comprehensible for English learners: The SIOP Model (2nd ed.). Boston, MA: Pearson Education, Inc.</p>		